


2001-ean 898 odol donazio egin ziren Hernanin

■ 2000-an baino 27 donazio gehiago egin ziren iaz ■ Odol emaile berriak ere igo egin dira ■ Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak dio Hernanikoak oso datu positiboak direla ■ Bihar odola emateko eguna.



Datuak erakusten dute hernaniarrak oso odol emaile finak direla.

HERNANIN 898 odol donazio izan ziren 2.001garren urtean, hilean behin egiten diren estrakzioetan. 2.000 garren urtean, berriz, 871 izan ziren iaz baino 27 gutxiago.

Datuak bere horretan hartuta, Gipuzkoako Odol Emaile Elkarteak oso balorazio positiboa egiten du. Cardenas doktorearen hitzetan, oso kontuan hartzeko zenbakiak dira. Gainera, Cardenasen arabera, kontuan izan behar da hernaniar batzuk Donostian ematen dutela odola, lanagatik-edo eskurago datorkielako.

Beraz, hernaniar guztien donazioak batu ezker, 2.001garren urtean 900 odol boltsatik gora bildu dira. Bada oraindik horiei erantsi beharreko beste datu bat: odola ematera dijoazen guztiek ezin izaten dute eman, momentu horretan baldintza egokietan ez daudelako. Iaz 50 pertsona gelditu ziren egoera horretan.

GIPUZKOA OSOAN 31.566 DONAZIO

Probintzia osoko datuak hartuta, Gipuzkoan 31.566 odol donazio egin ziren iaz: 2.000 garren urtean baino 500 donazio gehiago. Hernaniarrek

Gipuzkoako osoko odolaren % 2.85 eman zuten iaz.

Beste zenbait herrietako datuak ere interesgarriak dira. Bergara da proportzioan odol gehiena ematen duen herria:

2.001an 1.456 donazio egin zituen. Lasarte ere Hernanin gaineratik dabil: iaz, 916 donazio. Tolosak 761 izan zituen; Zarautzek 725, Errendetik 801 eta Zumarragak 827. Beste herriekin konparatuta, batzuek bestekoan, beraz, Hernani ondo dabil donazioetan.

% 5-AK EMANDA, ONDO Gipuzkoako odol beharrak ondo betetzeko herritarren % 5ak odola eman behar du, Odol Emaileen Elkarteak Cardenas doktoreak Kronikari adierazi

DONAZIO KOPURU IDEALA

Hernanin 925 odol donazioa ematea litzateke 'ideala'

dionez. Hernanin bertan egiten diren donazioak kontatuta, gure herria % 4.85ean dabil: ondo bai, baina, kopuru idealaren azpitik, hala ere.

ODOL EMAILE BERRIAK

Odol Emaile Elkarteak odol emaile berrien garrantzia nabarmendu du. Hernanin iaz 55 pertsonak eman zuten odola aurreneko aldiz eta hori ere pozteko datua dela azpimarratu du Cardenas

doktoreak. "Odola eman ahal izateko gero eta kontrol zorrotzagoak daude eta odol emaile berriak behar dira etengabe" dio Cardenasek. Adibidez, Britainia Handian 6 hilabetez egon ezker ezin da berriz odolik eman, *behi eroen* gaitzagarri; herrialde tropikalen batean egon ezker urtebete egon behar da odolik eman gabe, eta abar. Beraz, beharrezkoa da etengabe odol emaile berriak sartzea.

BIHAR ANBULATORIOAN

Hernanin hileko aurreneko asteartean izaten da odola emateko eguna eta bihar tokatzen da. Arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara. □

FUTBOLA

Hernani, gora

- 1-2 irabazi zion Ordiziari
- Orain, 31 puntu ditu.

HERNANI etxetik kanpora galzten ez duela jarria dago eta Ordiziari 1-2 irabazita bukatu du denboraldiko lehen itzulia. Hiru puntu horiekin onenen taldean sartu da: Tolosa edo Pasaia adina puntu ditu eta hirugarren postetik 3 puntura jarri dira Loranen mutilak. Hurrengo partidua bigarrenaren kontra, Zubipen: Hernani-Zarautz.

Udal inbertsioak erabakitzeko bilera

- Azteazkenean 19:30etan, udaletxeako pleno aretoan

Eusko Alkartasunak Hiri Batzarra

- Ostegunean, 19:00etan. EUSKO Alkartasunak Hiri Batzarra egingo du datorren ostegunean. EA-k afiliatu eta jarraitzaile guztiei dei egiten die Elkartetxean egingo den Hiri Batzarrera joateko. □

Sukaldaritza makrobiotiko ikastaroa

MAKROBIOTIKO elkarteak otordu makrobiotikoa egiten ikasteko ikastaroa antolatu du. Bihar zortzi hasiko da (urtarrilaren 15ean) eta 8 astetako da; Errioguarda jatetxean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Apuntatzeko: 943-270489 edo 943-555886 (Juani). □

Galdutakoak

- Zilarrezko lepoko bat galdu zen abenduaren 27an, Latxunben. Norbaitek aurkituko balu dei dezala 943 555874 telefonora. □

AMEGAR, C. B.

ETXE TRESNAK

SUKALDE ALTZARIAK
HORMA ARMARIOAK
Neurrira egiten ditugu.
Izpizua 27

ELEKTROGAILUAK - TB -
BIDEOKAK - HI-FI - OPARIAK
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603
HERNANI (Gipuzkoa)

ZINGI-ZANGA



Jatetxea
Florida 54
Tel:943 33 03 97
HERNANI

• Eguneroko menua •

Skoda Octavia Combi 4X4 .

Obsesionatzen gaituzte teknologiak eta segurtasunak. MSR gurpiletako trakzioa Haldez sistemarekin, 1700cc eta gidariaren nahiz ondokoaren aire-poltsak gaitu toki zabalak: 1.412 litrorainoko tokia eta leku zabalak bidaiariarentzat. Erakartzeko sunak: serieko osagaietan sartuak daude Cl: lau MSR zuzen ategian, erosota



MENABI

Txingurri pasealekua 26 Herrera auzoa - Donostia Tel. 943 40 42 43

Bola txapelketak datorren igandetik aurrera hasiko dira

■ Taldekako txapelketa izango da aurrenekoa ■ Igandean jokatu da, Mutiloan ■ Hernaniko hiru ekipotako bolariak han izango dira.



Migel Arrozpide Hernaniko txapelketa eta bolari gazte bat Benta Berrin tiratzen.

BOLA txapelketak hastera dijoaz. Datorren igandean hasi eta ia astero-astero izango da tiraldia, ekainera arte. Tiradak goiz eta arratsalde izaten dira.

7 TXAPELKETA

Gipuzkoan zazpi txapelketa ofizial izango dira aurtengo denboraldian: Ekipokako txapelketa, Erregularitatea, Bikoteka, Banakakoa, Federazioko Lehendakari Saria, Beterano-emakume-gazte eta haurren txapelketa, eta Euskadiko txapelketa. Guztiak orden horretan.

Bolan, zein lekutan jokatzen den alde handia dago, bolatokiak oso ezberdinak izaten baitira leku batean eta bestean. Aurten, Euskadiko Txapelketa Gipuzkoan jokatuko da eta horrek emozio

berezia emango dio denboraldiari. Gizpuzkoako bolariak, hernaniarrak tardean direla, aukera dezenteak izango dituzte txapelata irabazteko.

HERNANIN 3 EKIPO

Taldekako txapelketa izango da denboraldiko aurrenekoa. Bi igandetara jokatu da, Mutiloan eta Añorgan. Hernanin hiru talde daude eta hirurak han izango dira: CD Hernaniko taldea, Ur-Mia elkarteko taldea eta Elur-Txori elkarteko taldea.

Bolan jende heldua ibiltzen da gehiena, baina, Hernanin gazteak ere badabilta. Hala ere, badira herriak Hernanin baino dezente gazte gehiago ibiltzen direnak.

ERREGULARITATEA

Taldekako txapelketa eta gero

Erregularitate txapelketa etorriko da. Urtarrilaren 27an hasiko da Urmietan eta apirilaren bukaera, Seguran. Erregularitate txapelketa 12 tiraldietan brila gehiena botatzen dituenak irabazten du. Iaz, Antonio Miner eta Joxe Ugalde hernaniarrak aurreko puntan ibili ziren.

Erregularitate txapelketako bi tiraldi Hernanin izango dira: otsailan Florian, Benta Berriko bolatokiaren eta apirilaren 27an, Ereñotzuko txapelketako azken aurreko *tirada* izango da.

HERNANIKO TXAPELKETA

Federazioak antolatutako txapelketez gain, Hernaniko Bola txapelketa ere egiten da, ekainean. Migel Arrozpide da txapelketa. □

■ XAKEA - HERNANIKO TXAPELKETA

Gaur hasiko da bigarren fasea

■ Hasi ziren 48 xakelariak jarraitzen dute ■ Lehen fasean lortutako sailkapenaren arabera beste 8 talde egin dira ■ Faboritoak hasi dira nabarmentzen.

JOKATU dira Hernaniko Xake Txapelketaren lehen faseko

120 partidak. Orain, gaur bertan, bigarren fasea hasiko da,

eta beste horrenbeste partida jokatu dira.

Lehen faseak ez zuen inor kanporatzen, baina sailkapenak balio izan du, bigarren faserako taldeak egiteko garaian. Lehen faseko 6 lehenengoak talde buru dira orain bat zerbakiarekin, hurrengo seiak 2 zerbakiarekin daude eta horrela talde bakoitzera-ko sei osatu arte.

Fase hau otsailak 11ean bukatuko da, eta talde bakoitzeko 2 lehenengoak sailkatuko dira hirugarren eta azken faserako. □

Bigarren faseko taldeak			
1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	4. TALDEA
1. J. Angel Ibarra	1. Gerardo Plaza	1. Iñaki Zabala	1. J.M. Sorozabal
2. Joxe Arnedo	2. Bixente Monreal	2. Eneto Soto	2. Josu Arrieta
3. A. Bereziartua	3. Reilly	3. Joset. Barandin	3. Ibi Arrizabalaga
4. Alberio Arizaga	4. Xabi Lasa	4. Enara Soto	4. Jon Habarro
5. Koldo Bilbao	5. Iñaki Uribe	5. Fernan. Esnaola	5. Joxeba Gaiñza
6. Jon Alzaga	6. Ibon Goñi	6. Angel Monreal	6. Joseba
5. TALDEA	6. TALDEA	7. TALDEA	8. TALDEA
1. Ibriz Osas	1. Mikel Apeztegui	1. Otxan	1. Indiro Esnaola
2. Zigor Aslarbe	2. Iban Txamborro	2. Kollan	2. Serg. Lamedra
3. Iñaki Erdozia	3. J. Manuel Orellana	3. Mikel Arrieta	3. Usai Odriozola
4. Luis	4. J. Navascués	4. Paul Plaza	4. Charley Reoyo
5. Txetxo	5. Tomas Huizi	5. Angel Tallo	5. Pablos Blascov
6. J. R. Alana	6. Fernan Iglesias	6. Iñigo Monreal	6. Peio Goeyo

Mekanika, elektrizitate eta elektronika ikastaroak Institutuan

■ Hernani Institutuak langileentzat mekanika, elektrizitate eta elektronika ikastaroak antolatu ditu. Matrikula debalde da eta epea zabalik dago: 943-551958.

Martindegin bertso afaria

■ Martindegin sagardotegia eta bertso afaria antolatu dute aurten ere. Larrarte sagardotegian izango da afaria eta, Maialen Lujanbio eta Jexux Mari Irazu arituko dira bertsoetan.

MUS TXAPELKETA

Txantxangorin, hastera eta Elur-Txori, segi

■ Txantxangorri elkarteak zabaldu du elkarteko mus txapelketan izena emateko epea: hil honen 25 arte izango da zabalik. Txapelketa banaka eta binakakoa da eta urtarrilaren 28an hasiko da.

Elur-Txori, berriz, bigarren faseko partidak jokatu dituzte aste honetan. □

Molotoff Irratia martxan berriz

■ Gabonetako etenaldia eta gero, Molotoff Irratiak, gaur, betiko programazioari ekingo dio berriz. Hamaiketoff magazinaz gain, gaur, sexismoari buruzko debata du *Tertulin* saioan, gaueko 22:00etan. □

JASOTA BEZALA

Gabonetako bolak eta eguneroko bolak.

Egun hauetan, Eguberrietako arboletan zintzilik izan diren bolak jaso eta gorde egingo dira.

Baina badira, bestalde, beste motako bolak, inoiz jasotzen ez direnak eta urte osoan gure herria "apaintzen" dutenak: txakurrek egindakoak.

Gero eta gehiago ikusten dira bola marroixka eta nazkagarri horiek eta konponbidea

bilatu beharko dugu Hernaniko espaloiak orain bezala kaskaturik ikusi nahi ez baditugu.

Errua ez da txakurrena, noski; txakurren jabeak dira besteenganako errespeturik gabe jokatzen dutenak.

Mesedez, denon artean ahaleginak egin ditzagun Hernani garbi baten alde.

J.L. Gómez.

KIROLAK - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA	TALDEAK	PELOTA	BIKOTEAK
Gorengoa	Ordizia 1 - Hernani 2	P.Gom.Nez	Hoz-Lujanbio 30 / Burutaran-Valero 11
Emak. liga	Amara 0 - Hernani 7	Esk.bin. Inf.	Grajal-Ezeiza 18 / Gazteleku 9
1. Erregion.	Hernani 1 - Mariño 2	Esk. bin. Juk	Lapueb.de Lab.9 / Alvarez-S. Sebast. 22
Gazt. L. Naz.	Indartsu 1 - Hernani 1	Esk. bin. inf.	Altzatarra 7 / Barrantes-Fernandez 22
Gazt. Ohor.	Anaitasuna-Hernani	Uta.Her.Pak.	Valero-Imaz 22 / Aitzol-Aitor 11
Kadet. Ohor.	Hernani 5 - Arrasate 0	Uta.Her.Pak.	Otaño-Lizartza 14 / Legarr.-Zubill. 22
Kad. 2.maila	Hernani 3 - Lazkao 0	Kron.Txap.	Aritz-Mikel 8 / Garmendia-Zabala 22
Haur.Ohor.	Eibar-Hernani	Kron.Txap.	Alvarez-Arruti / Joxe-Zelaia
M. TENISA	TALDEAK	Errem. Txap.	Altuna II-Etxabe 36 / Iñigo-Lizaso 40
Bigar. maila	Leka E.-Hernani-Easo	Erremontes	Larrea-Barrenet.31 / Iturrall-Gazt. 35

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak:
943 550093
► Udaltzaingoa:
943 333288
► DYA:
943 464622
► Anbulatorioa:
943 557750
► Jokalari anonimoak
943 331103

☎ FARMAZIAK

► Egunez: Correa Antziola 44
☎ 943 551933
► Gaeuz: Oa Usurbil. 1 poligonoa
☎ 943 376076
☎ ASTEARTEA
► Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11
☎ 943 553582

► Gaeuz: Ansa Andoain. G.Ondarreta
☎ 943 591302

☎ ASTEAZKENA

► Egunez: Gomez Nagusia 15
☎ 943 554892
► Gaeuz: Arzallus Andoain. Plazaola 17
☎ 943 591514

Argitalpen hau, honako entitate hauen laguntzari esker argitaratzen da:



HERNANIKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA
Kultura Sailak diruz lagundua